



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 20koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio espedienteak abian jar ditzan modu bidegabean jasotako zenbatekoen itzultzea eskatzeko, indarrean dagoen araudia betez.

Aurrekariak

1. (xxxx)-ek, erreklamatzailak diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzarako prestazio osagarria eta guraso bakarreko familientzako subsidio ekonomikoak jasotzen ditu. Prestazio horiek eten egin zizkioten 2011ko martxoaren 17ko ebazpenaren bitartez, ez baitzituen bizikidetzaren unitatean egondako zenbait aldaketa jakinarazi. Eteteak atzeraeraginezko izaera duenez, ebazpen beraren bitartez, modu okerrean jasotako zenbatekoen ondorioz pilatutako zorra baten berri eman zioten, 3.099,21 eurokoa hain zuzen ere.
2. 2011ko apirilaren 14an Ararteko erakundeak Arabako Foru Aldundiari prestazioen etetea eragin zuten arrazoi zehatzei buruzko informazioa eskatu zion, bai eta modu bidegabean jasotako zenbatekoen itzultzea eskatze aldera, espediente berriak abian jartzeko jarraitutako izapideei buruzko informazioa ere.
3. Maiatzaren 26ko idazkiaren bitartez erantzuna jaso zen. Bertan, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailak etetea justifikatu zuen baina ez zuen modu irregularrean jasotako zenbatekoen itzultzea burutzeko jarraitutako izapideei buruzko erreferentziarik egin. Erreklamatzailari alde aurretik beste prestazio bat eten zioten eta, ondorioz, beste zorra bat pilatu zuen, 4.171,10 eurokoa. Erantzunean ez zen ematen zorra berriaren xehatzearen inguruko informaziorik eta ez zen zehazten martxoaren 17ko etetearen ondorioz pilatutako zorra zein den. Informazio hori ez zioten eman bere garaian erreklamatzailari bidalitako ebazpenaren idazkiaren bidez.
4. Arabako Foru Aldundiaren eskutik jasotako erantzun partziala kontuan hartuta, bigarren informazio eskaera bidali zen. Azken horrek soilik eskatzen zuen modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultze aldera, dagozkion espedienteak abian jartzeko jarraitutako izapideei buruzko informazioa bidaltzeko. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak uztailaren 18an erantzun zuen. Hauxe da erantzuna osotasunean: *“Por economía procesal la Diputación Foral de Álava procede a notificar la suspensión de la Renta de Garantía de Ingresos y sus prestaciones complementarias mediante resolución de fecha 17 de marzo de 2011. Resolución donde se hace referencia al motivo de la suspensión, así como la fecha de efectos (01/01/2011), la deuda generada por el cobro indebido, que asciende a 3.099,12€ (sic) y la forma de cancelación de dicha deuda. Pudiéndose interponer un recurso de alzada contra dicha resolución, posibilitando a las*





personas usuarias que aleguen y presenten cuanta documentación consideren oportuna para desvirtuar las causas que motivaron dicha suspensión, así como la fecha de efectos o la deuda generada."

Gogoetak

1. Prestazio horiek erregulatzen dituen araudiak alde nabarmena ezarri du prestazioa eteteko prozeduraren (edo, hala badagokio, prestazioa aldatzeko edo iraungitzeko) eta modu bidegabean jasotako zenbatekoak itzultzeko prozeduraren artean. Hala, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko 147/2010 Dekretuak VI. kapitulua, *"jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea"* izenekoa (56-58 artikulua), zenbateko horiek eskatzeko jarraitu beharreko prozedurari eskaini dio. Era berean, etxebizitzarako prestazio osagarriaren gaineko 2/2010 Dekretuak ere haren IV. kapitulua, *"jaso behar ez ziren prestazioak itzultzea"* izenekoa (34-36 artikulua), prozedura berari eskaini dio.

Zehatz-mehatz, 147/2010 Dekretuaren 57. artikulua, lehenengo paragrafoan, zera zehaztu du: *"Aurreko artikuluan aurreikusitako edozein kasutan (arrazoi horren ondorioz zorra sortu dezaketen arrazoien aipamena eginez), dagokion foru-aldundiak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzeko prozedura hasiko du"*. Bigarren paragrafoan jarraitu beharreko izapideak zehaztu dira: *"Prozedura hasitakoan, foru-aldundiak ondokoak jakinaraziko dizkio titularrari: prozedurari hasiera eman zaiola, oinarritzat dituen arrazoiak, izan ditzakeen ondorio ekonomikoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, eta 58. artikuluan ezarritako epean berariazko ebazpenik ezaren ondorioak. Interesdunek, hilabeteko gehieneko epean, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ahalko dituzte"*. Aipatutako 58. artikulua, lehenengo paragrafoan, itzultzeko prozedura amaitzeko foru-aldundiek daukaten gehieneko epea ezarri du: *"Itzultzeko prozeduraren ebazpena emateko eta ebazpen hori jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, prozedurari hasiera ematen zaionetik. Epe hori esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi gabe muga eguneratzen bada, prozedura iraungi egingo da, eta hori adierazten duen ebazpenak jardunak artxibatzea aginduko du"*.

2/2010 Dekretuaren IV. kapituluak, berriz, antzerako terminoetan etxebizitzarako prestazio osagarri gisa zenbait zenbateko modu okerrean jaso badira jarraitu beharreko prozedura aipatzen du (guraso bakarrek familiantzako subsidio ekonomikoarentzat ez dago horrelako xedapenik, diru-sarrerak bermatzeko errentaren barruan dagoen prestazioa baita).

Beraz, legegileak argi eta garbi desberdintzen ditu, alde batetik, prestazioen etetea aitortzeko jarraitu beharreko prozedura eta, bestetik, modu bidegabean jasotako zenbatekoak eskatzeko jarraitu beharreko prozedura.



Ondorioz, erakunde honetan uste dugu *"prozesu-ekonomiari"* lotutako arrazoiak ezin direla erabili zenbait prozedura arau ez betetzea justifikatzeko. Izan ere, gogorarazi beharra dugu arau horiek gizarte prestazioak jasotzen dituzten pertsoneri eta, beraz, gizarte bazterkeria egoeran edo egoera hori pairatzeko arriskuan dauden pertsoneri zorra bat sortu dutela aitortzeko modua erregulatzen dutela. Alor horretan hain zuzen ere, administrazioek araudiak xedatzen dituen bermeak zintzotasunez aplikatu behar ditu. Araudiak alegazioak aurkezteko epe bat ezartzea xedatzen du, besteak beste (147/2010 Dekretuaren 57.2. artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 35.2. artikulua), bai eta administrazioak ebazteko daukan epea ere (147/2010 Dekretuaren 58. artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 36. artikulua). Halaber, zorra pilatu dela jakinaraziz gero, araudiak, beste berme batzuen artean, hileko itzultze kopurua eta zenbatekoa xedatu du (147/2010 Dekretuaren 57.4. artikulua eta 2/2010 Dekretuaren 35.4. artikulua).

Aipatutako araudiak ez duenez kasu horientzako prozedura laburturik aipatzen eta legegileak dekretuen kapitulu zehatzak okerreko kobrantzei eskaintzea erabaki duenez, erakunde honetan uste dugu argudiatutako prozesu-ekonomiari lotutako arrazoiak ezin direla erabili legegileak berak argi eta garbi bereizi dituen bi prozeduren fusionatzea justifikatzeko, araudiaren ezin puntutan ezartzen ez den prozedura labor bat aplikatuz eta, ondorioz, ordenamendu juridikoak gizarte prestazioak jasotzen dituzten pertsoneri ematen dizkien bermeak modu larrian murriztuz. Halaber, ezin da ulertu ondoren ebazpenaren aurkako errekurtsio bat aurkezteko aukerak alegazioak aurkezteko izapidea ordezkatu izanak, bi jarduerak helburu desberdinak baitituzte: alegazioak aurkezteak azkenean ebazpenean islatuko den erabakia hartzerakoan esku-hartzeko aukera ematen du, gora jotzeko errekurtsioak, aldiz, ebazpen bati dagokionez desadostasuna adierazteko balio du.

Esku artean dugun kasuan, zenbait prestazio eten dira, hortaz, erakunde honen aburuz, espediente berri bat abian jarri beharko litzateke horietako bakoitza (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria, hurrenez hurren) modu okerrean jasotzearen ondoriozko zenbatekoen itzultzea eskatzeko.

2. Bestalde, erreklamatzailak alde zurretiko zorra bat dauka, 2010eko uztailaren 23an prestazioak eteteko ebazpenaren bitartez jakinarazi ziotena. Une horretan 4.171,10 eurokoa zen. 2010eko abenduaren 2ko ebazpenaren bitartez, prestazioak berriro aktibatuko zizkiotela jakinarazi zioten, bai eta 2.378,45 euroko zorra mantentzen zuela ere (murriztu egin diote, zorrak kitatze aldera, erreklamatzailaren kontutik zenbait kuota kendu zizkiotelako).

Modu bidegabean zenbatekoak jasotzen direnean jarraitu beharreko prozedurari buruzko araudia ez aplikatzearen ondorioz, kexak hizpide duen



ebazpenean ez da zorraren zenbatekoaren xehatzea egin, beraz, erreklamatzailak praktikan ez daki zer zati dagokion 2011ko martxoaren 17ko eteteari. Hori dela eta, erakunde honen iritzia jarraiki, babesgabetasun bikoitza sortu da; alde batetik, eteteko eta okerreko kobrantzak itzultzeko prozedurak fusionatu izanagatik eta, bestetik, pilatutako zorra berriaren zenbateko zehatza jakinarazi ez izanagatik.

Modu bidegabean jasotako prestazioak itzultzeko prozedurak, 147/2010 Dekretuaren VI. kapituluaren eta 2/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren araututa dagoenak, bermeak ezartzen ditu; izan ere, prozedura horren hasiera jakinarazteko betebeharrak xedatzen du, arrazoiak eta interesgarriak diren gainontzeko datuak adieraziz, hala nola, ondorio ekonomikoak edo ebazteko epea. Horrez gain, epe bat ezartzen du eragindakoek alegazioak aurkeztu ditzaten eta zenbatekoak modu bidegabean jaso diren edo ez erabakitzen duen ebazpena nahikoa arrazoitua egon behar dela dio.

Edonola ere, okerreko kobrantzak egon direla aitortzen duen ebazpenak berriaz jaso beharko du dagozkion zenbatekoak itzultzeko betebeharrak, egin behar hori betetzeko epea ezarri eta itzultze kopurua eta itzuli beharreko zenbatekoak zehatzuz (ezarritako gehienezko muga % 30 da, "*titularrak zentzu horretan beste nahi bat adierazi ezean*").

Foru administrazio horren jardura, hau da, ustezko prozesu ekonomiaren ondorioz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren etetea zein okerreko kobrantzen itzultzea erabakitzeke ebazpen bakarra eman izana, ez dator bat 147/2010 Dekretuaren VI. tituluko eta 2/2010 Dekretuaren IV. kapituluaren bermeekin. Administrazioak jardura hori berraztertuko beharko luke prestazioak itzultzeko eskaeraren ondorioz eragindako pertsonari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen IV. kapituluaren ezarritakoarekin bat eginez, eta baloratu beharko luke araudian aipatutako baldintzak ez betetzeak interesdunaren babesgabetasuna eragin duen. Hala bada, dagozkion moduan jokatu beharko du.

Edonola ere, etorkizunean araudiaren bidez ezarritako prozedura zintzotasunez errespetatu beharko du, batez ere, eragindako pertsonen bereziki zaugarria den kolektibo bat osatzen dutela aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

53/2011 GOMENDIOA, abenduaren 20koa, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari egina:



Etorkizuneko ebazpenetan modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzeko dagozkion espedienteak abian jarri ditzan, 147/2010 Dekretuko VI. kapituluak eta 2/2010 Dekretuko IV. kapituluak ezarritakoarekin bat eginez, gizarte prestazioak eteteko ebazpenetik bereiziz.

